

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, enpresak burutu behar dituen ekintzak dira, bere negozio-ereduak funtziona dezan. Atal ezberdinetan sailka daitezke: ekoizpena, arazoan konponketa eta plataforma edo sareko jarduerak. Hala ere, azpimarratu beharra dago jarduera asko enpresaren eskuetan utzi daitezkeen arren beste asko ez daudela enpresaren baitan. Hala nola, ezin daiteke besteen esku utzi honekin lotutako guztia.

Gure enpresaren kasuan, ekoizpenari dagokionez, galtzerdien diseinuaz arduratuko gara. Beste hitz batzuetan, guk galtzerdi bat diseinatuko dugu, erabakitako ezaugarriekin, eta ondoren produktua burutuko duen enpresa bat aurkitu eta aukeratzeaz arduratuko gara. Aipatutako enpresak prototipoa egin ondoren erabakiak hartu eta behin produktu finala izanik hainbat ale produzituko dira. Azkenik, produktuaren salmenta gure gain geldituko da.

Esan bezala, arazoak konpontzea gure egitaraua izango da. Hala nola, behin prototipoa iritsita, hainbat doikuntza egin beharko dira, hau da, arazoak konpondu. Produktua burutzeko orduan aurkeztutako arazoak konpontzea ez da gure gain egongo, galtzerdien salmentan sortutakoak, ordea, bai.

Plataforma edo sareko jarduerari dagokionez, behin produktuak gure eskuetan izanda, sare sozialak martxan jarri beharko dira eta hori gure ardura izango da, baita ere prozesuan sortutako arazoak. Gure plangintzaren arabera, enpresak langileak kontratatzeke adina diru duenean hala egingo da, sare sozialetan eta marketingean aditua den langile bat taldean sartuz.

